



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

GURASOEN PARTE HARTZEA HEZKIDETZA BATZORDEAN

KASU BATEN AZTERKETA

GRADU AMAIERAKO LANA

IKASLEA: Martin Laguna, Zuriñe

IRAKASLEA: Ibarrola Agirre, Jose Antonio

2018-2019

LABURPENA

Dokumentu honen hurrengo orrietan garatutako Gradu Amaierako Lanean, erakutsi nahi da gaur egun, generoen arteko esparru guztietan, oraindik ba dagoela berdintasun erreala sortzeko beharra, eskolan hezkidetzako sistema bat ezarri. Modu honetan, hezkidetzaren trataera Gasteizko eskolan batean aztertuko da. Horretarako, hezkidetzak barnebiltzen duen terminologia ezagutuko da, kontzeptuen arteko desberdintasunak argitzeko asmoz. Hezkidetzak historian zehar izan duen bilakaera eta zapalkuntza kontuan izanik, gaur egun eskoletan eta familia barruan ematen zaion garrantzia aztertu nahi izan da. Honen harira, aipatutako eskolako Hezkidetzaren taldeko kideak elkarrizketatu dira: lau ama, aita bat eta irakasle bat. Elkarrizketen bitartez, taldearen historia ezagutu nahi izan da, baita hezkidetzaren duten formakuntza eta horrekiko duten interes maila ere. Elkarrizketetatik lorturiko informazioarekin hainbat hipotesi baieztatu edo ezeztatuko dira. Amaitzeko, lanaren mugak gogoan izanik, etorkizunean ikerketa lerroarekin jarraitzeko hobetzeko proposamenak aipatuko dira.

Hitz Gakoak: *Hezkidetzaren, Berdintasuna, Generoa eta Sexua*

RESUMEN

El trabajo fin de grado que se desarrolla en las siguientes páginas de este documento se quiere demostrar la necesidad, que existe aún hoy en día, de establecer una igualdad real entre géneros en todos los ámbitos de la vida, implantando un sistema coeducativo en la escuela. De esta forma, se analizará el tratamiento de la coeducación en una escuela de Vitoria. Para ello, en la fundamentación teórica se darán a conocer algunos conceptos básicos de la coeducación, con el fin de aclarar las diferencias que hay entre ellos. Teniendo en cuenta la evolución y la represión que ha sufrido la coeducación a lo largo de la historia, se ha querido analizar la importancia que le dan, tanto la escuela como la familia. Así pues, han sido entrevistados los miembros del grupo de coeducación de la escuela mencionada anteriormente con la intención de conocer la historia del grupo, y los intereses e inquietudes de cada uno de ellos, de manera que han sido entrevistadas cuatro madres, un padre y una profesora. La información conseguida a través de las entrevistas ha sido utilizada para probar o desmentir varias hipótesis. Al final de este trabajo se encontrarán narradas las limitaciones encontradas y las propuestas de mejora para ellas.

Palabras Clave: *Coeducación, Igualdad, Género y Sexo.*

AURKIBIDEA

1. Sarrera	3
2. Justifikazioa	4
3. Marko Teorikoa	5
3.1. Kontzeptuak	5
3.1.1. Sexua	5
3.1.2. Generoa	6
3.1.3. Sexismoa	7
3.1.4. Genero Berdintasuna	8
3.1.5. Hezkidetza	9
3.2. Hezkidetzaren bilakaera historikoa	11
3.3. Estereotipoak eta aurreiritziak	13
3.3.1. Eragileak (Androzentrismoa, Sexu-Generon sistema, Patriarkatua)	13
3.3.2. Estereotipo sexistak	16
3.3.2.1. Hizkuntza	16
3.3.2.2. Komunikabideak	18
3.4. Zergatik da garrantzitsua hezkidetzaren trataera eskolan?	19
4. Helburuak eta hipotesiak	20
5. Metodologia	21
5.1. Testuingurua	21
5.2. Lagina	22
5.3. Datuak biltzeko tresna	22
5.4. Prozesua	23
5.5. Datu-analisiak	23
6. Emaidzak	24
7. Ondorioak	29
8. Mugak eta hobekuntza proposamenak	34
9. Bibliografia	36
10. Eranskinak	39

1. SARRERA

Gradu Amaierako Lan honi hasiera emateko, lehendabizi lan hau osatzen duen egitura eta nondik norakoak ezagutzera joko da.

Hasteko, justifikazioaren atala aurkituko da, non hezkidetzaren gaia aukeratzearen zergatiak azalduko diren. Bertan gaur egungo egoera nolakoa den eta, beraz, lan hau gai honetan zentratzearen asmoa nondik etorri den ageri da. Hortaz, atal honetan ilusioen eta motibazioen justifikazioa dago.

Bigarren atala marko teorikoari dagokio. Bertan zenbait esparru desberdin ageri dira: lehendabizi hezkidetzak barnebiltzen duen terminologia aurkituko da, non oinarrizko kontzeptuen azalpenak ematen diren, esaterako, sexua, generoa, genero berdintasuna eta hezkidetzak. Jarraian, hezkidetzaren bilakaera historikoa etorriko da, hezkidetzak historian zehar jasan izan duen zapalkuntza eta eboluzioa modu argi eta labur batean ulertzeko. Honen ostean, gizartean integraturik eta onarturik dauden estereotipoen eta aurriritzien atala dator. Bertan, etiketa hauen eragileak zeintzuk eta zergatik diren azalduko da, hau da, androzentrismoa, sexu-genero sistema eta patriarkatua, gainera hauek hizkuntzan eta komunikabideetan duten eragina ere adieraziko da. Teoriaren atalarekin bukatzeko, hezkidetzak eskoletan zergatik landu behar den azalduko da.

Hurrengo atalean, zenbait helburu eta hipotesi agertuko dira, lanaren norabidea zehaztu dituztenak, gerora baieztatu edo ezeztatuko direnak.

Ondoren, metodologiari egingo zaio erreferentzia, eta honen barruan zenbait atal desberdin aurkituko dira. Hasieran, lan honetan analizatuko den testuinguruaren azalpena eta identifikazioa egingo da, non eskolaren esparrua eta gurasoen taldea hurbiletik ezagutuko diren. Jarraian, ikerketarako erabilitako lagina, tresna, prozedura eta datu-analisiak azalduko dira, kasu honetan, guraso taldeari egindako elkarrizketak.

Hurrengo atalak ikerketaren ondorioei dagokie, alde batetik, emaitzen atalean laugarren atalean aipatutako hipotesiak baieztatu edo ezeztatu egingo dira eta ondoren, emaitzen ondorioak aztertuko dira oinarri bibliografikoekin batera.

Azkenik, ikerketa-lana aurrera joan ahala topatutako oztupoak eta mugak zeintzuk izan diren azalduko dira, hauen arrazoiekin batera. Era honetan, landa-lanarekin jarraitu nahi izanez gero, zenbait hobekuntza proposamen aipatu dira etorkizun batean ikerketa modu desberdinetan hedatzea posible egiteko.

2. JUSTIFIKAZIOA

Gaur egun pil-pilean dagoen gai bat burura ekarri nahi izan nuen, eta horra hor ikerketa-lan honen gaia: HEZKIDETZA. Esan bezala, hezkidetza gaur egun “modan” jarri den gai “berria” da, baina hezkidetzak azken mendeetan zehar bizirik iraun du, beraz, ez da oraingo gauza. Gure gizartean hezkidetzaren okerrezko ideia dago, gainera gai honek barnebiltzen dituen kontzeptuak ere nahasteko joera dago; sexua eta generoa, batik bat. Modu honetan, ideia horiek argitzea eta gaiari ikusgaitasun puntu bat ematea lortu nahi izan dut eskulan honen bitartez. Gainera, etorkizunean irakaslea izango naizen heinean, beharrezkoa ikusten dut gai honen inguruan hornituta egotea, aurrerago azalduko dudan bezala, umeez hezkidetzan hezteko, haien eskubidea baita. Izan ere, betidanik gizartean ezkutatuta, gaizki-ulertuta eta baztertuta egon izan ohi den gaia da eta beraz, hezkuntzan hori barneratzea posiblea ikusten dut betiere irakasleen formakuntzan hau lantzen bada. Askotan oso zaila egiten zaigu, gizarteak etengabe sortzen dituen estereotipoak alde batera uztea eta gure erraietatik ateratzea, baina saia gaitezen urratsak ematen.

Gradu amaierako lan honen zeregin nagusia baloreetan oinarritutako hezkuntza mota honetara irakasleak zein eskolako familiak hurbiltzea, modu argian eta errazean hezkidetzaren ideia globala transmititzeko, hau da, eskola publikoa, laikoa, demokratikoa eta berdintasunean oinarritua dagoen hezkuntza ezagutzea, non edozein hiritarrek eskubide berdinak izango dituzten.

Gai hau aukeratzearen beste arrazoietako bat, praktikaldiaren denboraldian behatu izandakoa izan da, hau da, ikasleen arteko harremanak hutsune asko zituen, gainera, bai mutilek, bai neskek estereotipo gehiegi zituzten barneraturik jada, eta horrek nesken eta mutilen arteko harremanen garapenean zuen eragin zuzena, ez baitziren haien artean harremantzen eztabaidak edo liskarrak sortzen ez baziren. Ondorioz, neskek eta mutilek euren artean zituzten harreman eskasa eta harremanetan jartzeko zituzten arazoak ikusita, honen inguruan aditzeko grina sortu zitzaidan.

3. MARKO TEORIKOA

3.1. Kontzeptuak

Atal honetan, kontzeptu jakin batzuk aztertuko ditugu, gerora gradu amaierako lan hau aurrera eramateko eta hura ulertu ahal izateko halabeharrezkoak izango direnak. Aztergai izango ditugun kontzeptuak hurrengoak dira: sexu, genero, sexismo, genero berdintasuna, feminismoa eta hezkidetzak. Montserrat Barba-k (2018) dion bezala, aipaturiko kontzeptu hauek enfasi handiagoa jartzen dute emakumeak eta gizonak desberdintzen dituzten ezaugarrietan gizaki bezala batzen gaituzten ezaugarrietan baino, baina hauen esanahia ezagutzea beharrezkoa da emakumeen diskriminazioaren arrazoiak ulertu ahal izateko.

3.1.1. Sexua

Lehendabizi, sexu kontzeptuaren azaltzeari ekingo da, zeinak genetikari eta biologiari erreferentzia egiten dion non gizakiak bi sexu desberdinetan banatzen diren: gizonak edo emakumeak. Bi sexu hauen arteko desberdintasunak biologikoak (ugaltze aparatua, hormonak) eta genetikoak (kromosomak) dira giza ugalketari dagokionez.

Era honetan, eztabaidaezina da ikuspuntu biologiko batetik desberdintasun nabarmenak egotea gizonen zein emakumeen artean haien genitalei eta ugaltze funtzioei dagokienez. Hala ere, azken hau ezin dugu erabili justifikazio gisa gizonen eta emakumeen artean ahalmen, gaitasun eta jarreretan dauden desberdintasunetarako, non sexu kontzeptua ere erabiltzen den. Honen harira, gaitasun, jokaera eta nortasun desberdinak sortzearen gaian genero kontzeptua erabili beharko genuke, aurrerago azalduko dudana.

Gainera, Ajamil, Fuchs y Lucini (1990, 18.or) azaltzen duten bezala:

“El término sexo se reserva para la descripción de la diferencia biológica (niveles genético, endocrino y neurológico), y no determina necesariamente los comportamientos. Es el conjunto de estructuras que, a través de todo el proceso de desarrollo sexual, configuran a la persona como un ser sexuado en masculino o femenino. La persona no nace sexuada, sino que se va haciendo sexuada en el transcurrir de su vida”.

Sexua hiru ezaugarri ezberdinek osatzen dute: sexu anatomikoa (biologikoa), generoa (sozial eta kulturala) eta erotismoa (orientazio sexuala). Sexu anatomikoaren bitartez emakumeak eta gizonak banatzen dira eta anbiguetate sexuala duten pertsona horiek ahazten dira. Generoaren bitartez, ordea, femeninoa eta maskulinoa banatzen dira

eta, azkenik, erotismoak “hetero” eta “homo” banatzen ditu. Kulturalki gizon maskulino heterosexualaren eta emakume femenino heterosexualen ereduak zabaldu izan dira, dena den, hiru ezaugarri horiek nahastuz eredu ezberdin ugari sortu daitezke. Hau da, emakume eta gizon femeninoak eta maskulinoak existitzen dira eta horrek ez du definituko homosexualak edo heterosexualak diren (Escobar-Triana, 2007).

Aipatu beharra dago “sexo” hitza bilatzerakoan Real Academia de la Lengua Española-n (RAE) hiztegian hurrengo kontzeptuak agertzen direla:

- “Sexo débil: Conjunto de las mujeres”.
- “Sexo fuerte: Conjunto de los varones”.

Posiblea da hizkuntzaren instituzio ofizialetan ere kultura patriarkal baten sustraiak islaturik ikustea, non emakumearen irudia beti gizonen azpitik kokatzen den. Gainera, Real Academia de la Lengua Española-n sexu hitzaz gain, beste termino batzuk bilatzean, esaterako, “perra”, “zorra” edo “lagarta” emakumeari erreferentzia egiten dioten mespretxuzko jarrerak aurkituko genituzke.

3.1.2. Generoa

Aurreko atalean aipatu legez, generoaren kontzeptua argitzeak balio izango zaigu gertaera biologikoak (sexua) gertaera sozialetatik desberdintzeko (generoa).

Generoa Montserrat Barba-k (2018) dion bezala definituz, gizarteak emakumeei eta gizonei propioak eta desberdinak diren ezaugarri sozialen, kulturalen, politikoen, psikologikoen, juridikoen eta ekonomikoen multzoa da generoa. Generoak eraikuntza soziokulturalak dira, historian zehar aldatzen joan direnak eta jarrera psikologiko zein kulturei erreferentzia egiten dietenak. Era berean, generoetan “maskulino” edo “femenino” bezala erabilitako desberdinketak egiten dira, bai hezkuntzan, hizkuntzan, familian, eta baita instituzioetan ere.

Ondorioz, gaur egun ezjakintasun handia dago gai honen inguruan, horrenbestez, garrantzia da gai hau sakontasunez eta naturaltasunez azaltzea eta sexua eta generoaren arteko bereizketa egitea. Xabier Pajuelo eta Josebe Iturrioren (2016) esanetan, Gehitu elkarteko, hots, Euskal Herriko gay, lesbiana, bisexual eta transexualen elkarteko kideen esanetan, mugimendu feministak garatu zuen gehienbat sexuaren eta generoaren arteko bereizketa ardatz duen sistemaren analisisa, garaian zegoen determinismo biologikoari eginez. Pajuelok (2016) generoa halaxe definitzen du: “gizarteak sortzen eta barneratzen dituen balioen, estereotipoen edota rolen multzoa da generoa”. Iturriozek (2016), berriz,

hurrengo moduan definitzen du generoa: “persona baten nortasuna edo izaera izango litzateke, gizon ala emakume”. Era honetan, argi dago generoak gizartearekin harreman zuzena duela:

“El género es un conjunto de normas diferenciadas para cada sexo, que cada sociedad elabora según sus necesidades y que son impuestas a los individuos a partir del nacimiento, como pautas que deben regir sus comportamientos, deseos y acciones de todo tipo” (Subirats, 1994).

Marina Subiratsen ideia honek aitortzen du aintzinatik bestelakotasun nabarmenak egon direla gizonen eta emakumeen artean, batez ere, bakoitzak zuen rolari eta betebeharrei zegokienez, emakumeen zeregin nagusia ugalketa baitzen, eta horren ostean seme-alaben zein etxearen zainketa, gizonak kanpoan lanean zebilelarik.

3.1.3. Sexismoa

Sexismo kontzeptua gizarte zientzietan erabili ohi da gizabanakoek jasotzen duten hierarkizazio zien desberdintasun jarrerak izendatzeko, sexu desberdinketa oinarri gisa hartuz. Gaur egun, sexismoa gizarteko gidalerro kulturala da eta herri askotan indarreko legeek honen aurka egiten dute, demokrazia pertsona guztienganako berdintasunezko trataera izatearen ideian oinarritzen delako guztiek aukera berdinak izan behar baitituzte. Hala ere, diskriminazio sexistak gure kulturen aintzinetik oso errotuta dauden ohiturak dira, nahiz eta legegile aldaketek aspektu batzuk eraldatu, hauek oraindik ere gure artean bizirautean dute (Subirats, 1994).

“El sexismo comporta consecuencias negativas para todos los individuos, hombres y mujeres, porque limita sus posibilidades como personas y les niega determinados comportamientos.” (Subirats, 1994, 61.or)

Halaber, badira sexismoari buruzko ikuspuntuak eman dituzten zenbait autore non definizioen esanahiek konnotazio zabalak dituzten.

Sandra Arayak dionez, “La diferenciación sexista afecta a las mujeres y a los hombres. Sin embargo, en el sexismo la diferencia se coloca en una escala jerárquica que termina por sostener el argumento que las mujeres son inferiores. Esta condición de inferioridad se perpetúa a partir de mecanismos que terminan por crear y consolidar representaciones sociales acerca de las mujeres y de los hombres que, a su vez, actúan para transformar la diferenciación en segregación” (Araya, 2004)

Zita honen bitartez, ondoriozta dezakegu azken urteetan zehar sexismo kontzeptuak pairatu izan dituela zenbait transformazio. Horregatik, nahiz eta sexismo hitza zenbaitetan ahoberoz erabili, nabarmentzekoa da bilakaera hauek eragina izan dutela emakumeen baldintzetan eta berdintasun formal bat sortu dutela, beharrezkoa dena, baina ez nahikoa emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasun erreala eta ekitatea lortzeko.

Honen harira, beste autore batek egindako sexismoaren definizioa analizatuko dugu:

“Conjunto de todos y cada uno de los métodos empleados en el seno del patriarcado para poder mantener en situación de inferioridad, subordinación y explotación al sexo dominado: el femenino” (Sau in Limone, 2005).

Beraz, sexismo terminoaz ari garenean, erreferentzia egiten diogu gure gizartean dagoen joerari: pertsonen diskriminazioa beren sexuagatik, batez ere emakumeen bazterkeria “sexu ahula” edo “menderatua” izateagatik, hau da, sexu femeninoa.

3.1.4. Genero Berdintasuna

Genero berdintasunaren kontzeptua hitz gakoa izan da Nazio Batuetako Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean pertsona guztiak legalki, kulturalki eta sozialki berdinak izateko. Honi dagokionez, hurrengo artikulua daude eza

Genero berdintasunaz ari garenean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari egiten diogu erreferentzia, legeen aurrean denak pertsonak garelako arraza, nazionalitatea, sexua eta abar kontuan hartu gabe, denok baititugu eskubide berdinak Estatuaren eta gizartearen aurrean.

Izan ere, gaur egungo gizartean konproba dezakegunez legearen aurrean berdinak izateak ez digu ezertarako balio, gerora honek ez baditu ekitatearen printzipioak betetzen emakumeen eta gizonen artean. Horregatik, bizitzaren esparru guztietan aukera eta posibilitate berdinak sustatzea halabeharrezkoa da benetako berdintasun erreala egon dadin inolako sexu murrizterik gabe.

Genero berdintasuna emakumeek azkenengo hamarkadetan zehar pausuz-pausu eta horretan tematuz lortu duten eskubidea izan da, hala ere, oraindik ere badago eskubide zein aukera askoengatik borrokatzeko beharra emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala egon dadin. Azken honetan, feminismo kontzeptuak du zerikusi handia: kontzeptuak erreferentzia egiten dio emakumearen askatasunaren mugimenduei, historikoki ikuspen

desberdinak jaso dituztenak eta beste mugimenduek bezala, honek ere gizartearengan (emakumeengan batez ere) pentsamendua, ekimena, teoria eta praktika sortu du.

Nahiz eta feminismoa homogeneoa ez izan, ez du ideia multzo itxi bat osatzen, hau sexismoaren aurkako mugimendu politiko integrala dela esan genezake eremu guztietan (juridikoa, ideologikoa eta sozioekonomikoa), non emakumeen edozein bazterkeria motaren aurkako borroka erakusten den (Gamba eta Diz, 2007).

3.1.5. Hezkidetzaren

Gaur egun, egoera asko ematen dira gizartean non umeei (neskek eta mutilek) ez dakiten markaturik dauden estereotipoekin bukatzen, beraz, aipatutako estereotipo hauen bukaera eta apurketa emateko beharrezkoa da hezkidetzaren kontzeptua zer den eta zer esan nahi duen era egokian ulertzea:

“El término «coeducación» es utilizado comúnmente para referirse a la educación conjunta de dos o más grupos de población netamente distintos: aun cuando ha sido a veces aplicado a la educación conjunta de grupos formados sobre la base de características de diversos tipos -clase social, etnia, etc.-, su uso habitual hace referencia a la educación conjunta de dos colectivos humanos específicos: los hombres y las mujeres. Esta es la acepción que será considerada en este trabajo” (Subirats, 1994).

Hezkidetzaren aldeko jarraitzaileak emakumeek eta gizonek hezkuntza bera jaso behar zutela pentsatzen zuten pertsonak izan dira. Hezkidetzaren kontzeptua askotan ordezkatu edo nahastu daiteke “eraikitze” kontzeptuarekin, hala ere, kontzeptuaren ideia beti zuzendua egongo da emakumeek eta gizonek batera hezkuntza bat jasotzera. (Subirats, 1994).

Iratxe Suberbiolen esanetan (2012) “la coeducación supone un proceso intencionado, y por lo tanto consciente, de intervención educativa, que persigue el desarrollo integral de las personas independientemente del sexo al que pertenezcan, y por tanto sin coartar capacidades dependiendo del género al que corresponden”.

Bestalde honako definizio hau ere eman izan da: “coeducar significa que todas las personas sean educadas por igual en un sistema de valores, de comportamientos, de normas y experiencias que no esté jerarquizado por el género social, lo que significa eliminar el predominio de un género sobre otro” (Cremades in Cabrera, 2010).

Definizio hauei dagokienez, hezkidetzak ezin da integratua izan eremu baztertu bat bezala, hau da, planteamendu hezigarri guztietan presente egon behar den eduki bat da eta honek zeharka eragina du ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan. Hortaz, hezkidetzak gizartearen mentalitate aldaketa bat suposatzen du, gaur egungo finkaturik dauden baloreak zalantzan jarriz aipaturiko mentalitate horretan hobekuntzak egiteko eta era horretan kritikoagoa den hiritargo bat sortzea, esaterako, genero desberdintasunei edo estereotipo sexistei dagokionez. Jarrera honek irakasleriaren aldetik jokatzeko eta hitz egiteko modu desberdinak inplikatzeko, espiritu kritikoa duten eta estereotipo sexistetatik at dauden pertsona libreak hezteko. Jakin beharra dago, hezteko kontzeptu hau nahiz eta berria iruditu, duela hamarkadak eta hamarkadak honen alde borrokatzen dela hezkuntza hobea eta egokiagoa bat lortu ahal izateko. Azken honen inguruko azalpena hurrengo atalean emango da, non hezkuntzaren historia modu labur batean ageri den.

Bestalde, Maria Jesus Cerviño psikologoak, 2007-an Madrilan egindako Hezkidetzaren inguruko jardunaldi batzuetan, hezkidetzaren kontzeptuaren esanahi zabalago bat azaldu eta transmititu zuen:

“Es educar para que los niños y las niñas se sientan bien siendo lo que quieren ser. Es utilizar un lenguaje que represente ambos sexos. Es ampliar las oportunidades educativas y formativas de todas las personas. Es compartir lo que hombres y mujeres desde lo que somos, desde nuestra historia, desde lo que hemos aportado al conjunto de la humanidad. Es dar el mismo valor al hecho de ser hombre o al hecho de ser mujer. Es educar a hombres y mujeres completos proporcionándoles saberes que les ayuden a entender este mundo, dándoles la oportunidad de conocer y trabajar sobre sus emociones y sentimientos, estimulándoles a tener en cuenta que necesitan y son necesarios para las personas con las que conviven” (Cerviño, 2007).

Cerviñok azpimarratutako aspektu guztiak gakoak izan dira eskola guztietako irakasleentzat; maisu-maistrek hiztegi generikoagoa erabili behar dute androzentrismoa alde batera utziz, historian zehar emakumeen lorpenak ere ezagutarazi eta goraiatu behar dituzte, ikasleak emozionalki hezi behar dituzte elkarbizitzen eta arazoak errespetuz eta modu baketsuan konpontzen ikas dezaten, ikasleei transmititu behar diete pertsona guztiok merezi dugula errespetuz tratatua izatea eta denok dugula aukera eta eskubidea nahi dugunagatik borrokatzea eta horren alde egitea. Aspektu hauen helburua hurrengoa da: gazteria aurreiritzi zein estereotiporik gabe haztea eta hezteak, etorkizun hurbilean desberdintasunak eta bazterkeria ekiditzeko, eta ez bakarrik sexista, baita arrazista eta klasista ere.

3.2. Hezkidetzaren bilakaera historikoa

Denboraren poderioz, hezkuntzak transformazio prozesu luze bat pairatu du, metodologian eta lorturiko helburuetan hobekuntzak bilatzeko saiakerak eginez. Aldi berean, kontzeptu eta ikuspegi berriak sortuz joan dira, gizartearen hezkuntza ideologiara apurka-apurka garatzen eta moldatzen joan direnak, hezkidetzaren kasua den bezala. XVIII. mendean hasi ziren berdintasun handiagoko tratamendua ematen zuten mugimenduak, aldarrikapen femeninoen eta Mary Wollstonecraft-ek (1790) argitaratutako lehenengo manifestuaren “*A Vindication of the rights of woman*” eskutik, hain zuzen ere. Manifestu honetan, emakumearen irrazionaltasuna hezkuntza faltaren arrazoia dela egiaztatzen da, eta ez emakumearen ezaugarri naturaletako bat, alegia.

Kontuan izan behar dugu eskola, modernitatearen instituzio gisa, ez zela sortu haurtzaro guztiari zuzentzeko, horregatik garrantzitsua da nork bere buruari galdetzea nola lortu zuten kanpoan gelditutako giza-taldeek alfabetatze proiektu honetan gehitzea, eta batez ere, nola lortu zuten emakumeek.

Modu honetan, eskola instituzioan, eskusibista zena, denboran zehar zenbait erreforma egon dira langileak, emakumeak, gutxieneko talde etnikoak, eta desgaitasunak dituzten pertsonak honen parte ere izan ahal izateko (Parrilla in Calvo & Susinos & García, 2009). Emakumeen kasuan, badira zenbait etapa desberdin non hauen inkorporazioa eman den (Subirats, 2006):

- Esklusio fasea: Denboraldi historiko bat da non emakumeek ez zuten eskubiderik hezkuntza formala jasotzeko. Bazeuden salbuespenak ere, baina oso murriztak ziren.
- Segregazio fasea: Denboraldi honetan emakumeek hezkuntza jasotzeko aukera zuten betiere bide desberdin eta paraleloetatik jasotzen bazuten (hezkuntza nagusiki gizonei zuzendurik zegoen).
- Integrazio fasea: Fase honetan emakumeak eta gizonak elkarbizitzan dira eskola berdinetan, irakasleria, material curricularra, espazio eta denbora berarekin.

Aipatzekoa da Emilia Pardo Bazanek egindako proposamena. Emakume honek, instrukzio publikoko aholkularia izan zenak, 1892. urteko Kongresu Pedagogikoan hezkidetzaren baliabide gisa aurkeztu zuen emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunekin bukatzeko. Gauzak horrela, bere proposamena ez zen onartua izan, baina azpimarratzekoa da emakume honek egindako ahalegin handia, talde progresistekin batera, berdintasunean oinarritzen ziren ideia horiek hezkuntzara heltzeko (Ballarín, 2006).

Viñaok (2002) egiaztatzen duen bezala, XX. mendea Espainia eta mendebaldeko herrialdetako Hezkuntza Sistemako feminizazioaren mendea izan zen. Hala ere, neskek eta mutilek jasotzen zuten hezkuntza guztiz desberdina zen, mutilei zuzenduriko hezkuntza zientzietan, artean eta gizartean oinarritzen zen, eta neskei zuzendutakoa, berriz, sumisio-obedientzian oinarritzen zen: emazte-ama egokiaren rola non helburua “emazte onak” hezitzea zen eta ez esparru desberdinetan hezitutako pertsona kritikoak (Ballarín, 2006).

Menderatze hezkuntza honen bitartez, umeei (neskek eta mutilek) sentimendu eta jokaera desberdinak izatea eragiten zuen egoera desberdinei aurre egiteko orduan. Menderatze honen aurka egiteko lehenengo mugimendu feministak sortu ziren emakume zein gizonentzako oinarri berdina duen hezkuntza baten alde egiteko. Momentu honetatik aurrera, mugimendu feministak aukera berdinak eskaintzen dituen hezkuntza bat exijitzen hasi zen, sexuagatik diskriminaziorik egin gabe.

Espainiako Bigarren Errepublikan zehar, hezkidetzak onartua izan zen eskoletan, eta horren beharra zegoela uste zen arren, oso eskola kopuru eskasa izan zen mistoa izatera ailegatu zena. Nahiz eta denbora laburrez iraun etapa honek, ondorio onuragarriak izan zituen batez ere neskegan, eskolarizatze tasek gora egin baitzuten. Hala ere, segituen etorri zen Gerra Zibila eta ondorengo Diktadura, hezkuntza instituzioetan atzerakada handia eragin zutenak, alegia, eskola mistoa debekaturik geratu zelako (Cortada in Ballarín, 2006).

70. hamarkadatik aurrera, Hezkuntza Lege Orokorra (Ley General de Educación, gaztelera) ezarri zen, eta honekin batera eskola mistoak berriro martxan jarri ziran. Argi dago, urte hartatik gaur egun arte eskolek aldaketak pairatu dituztela urteetan zehar ezarritako erreformak zirela eta. Hala ere, lege honek bai mutilei bai neskei aukera berdinak eskainiko zirela eta curriculum berdina erabiliko zutela ziurtatu zuen gutxienez 14 urte bete arte (Subirats, 1994, 55.or). Honekin batera, garrantzitsua da jakitea 1984-1985. urteko kurtsora arte eskola mistoa ez zela derrigorrezkoa, hortik aurrera neskek eta mutilek curriculum bera izan dute orain arte eskoletan, baita irakasle zein espazio berdinak ere.

XXI. mendearen hasieran, 2006. urtean hain zuzen ere, Hezkuntza Lege Organikoaren (LOE) ezarpenarekin batera emakumeen eskolarizatze tasa izugarria egon zen, garai hartako diskriminazioa neurri handiz txikituz eta oso onuragarria izan zen bi sexuen arteko berdintasun erreala emateko.

Azkenik eta konklusio bezala, “recientes trabajos de investigación muestran que en el espacio escolar persisten las desigualdades aunque están activas numerosas y valiosas propuestas para el desarrollo de una coeducación efectiva” (Del Amo, 2009, p. 20). Antzerako iritzia du Maria José Urruzolak (d.g.) “Las personas e instituciones que han

participado en este proceso de trabajo, que ha tenido sus altos y bajos, se han ido encontrando múltiples dificultades y resistencias en el ámbito social e incluso en el propio ámbito escolar”. Ondorioz, egiatzatu dezakegu gaur egun ez dela lortu hezkidetzaren errealean oinarritzen den hezkuntza bat, eta oraindik ere badagoela bide luzea aurretik emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala lortzeko bizitzaren esparru guztietan.

3.3. Estereotipoak eta aurreiritziak

Esan beharra dago “estereotipo”, “aurreiritzi” eta “bazterkeria” kontzeptuen arteko harremana oso estua dela. “Estereotipo” bezala ulertzen duguna da talde sozial bati buruzko sinesmen herrikoia, non oinarritzeko akordio bat dagoen. Aurreiritziari dagokionez, konnotazio negatiboa duen talde sozial bati buruzko sinesmen eta iritzien multzoa da. Kontzeptu hauek ezagutzaz, iritzi eta sinesmenez osaturiko fenomenoak dira. Era honetan, estereotipoa aurreiritziaren osagai kognitiboa izango litzateke (iritzia, sinesmena) beti negatiboak direlako. Argi dago, nahiz eta gutxieneko konexioa egon estereotipo negatiboaren eta aurreiritziaren artean, badaude kasuak non estereotipoek ez duten zerikusirik aurreiritziekin (González, 1999).

3.3.1. Eragileak (Androzentrismoa, Sexu-genero sistema, patriarkatua)

Errepresentazio kulturalak, horien artean generoari dagozkienak, ideia multzo bat da non gizartearen errealitatea ekoizten eta antolatzen den. Hauek mekanismo kulturalen bitartez transmititzen joaten dira eta generoa horietako bat da, eta bertan bai emakumeen eta bai gizonen bizitzak baldintzatzen dituzten ideiak, baloreak, sinesmenak, aurreiritziak, interpretazioak, beharrak, aginduak, debekuak eta arauak daude. Horrexegatik esaten da emakumeak eta gizonak ez direla berdinak, bakoitzari bizitzan funtzio desberdin bat ezarri zaiolako “según el tipo ideal históricamente gestado, la mujer, toda mujer auténtica, está adornada de unas características que la distinguen del varón: es dulce y tierna, cotilla y astuta, preocupada por lo concreto, incapaz de interesarse por cuestiones universales, sentimental, intuitiva, irreflexiva y visceral” (Fisas in Villaciervos eta Colás, 2007).

Guzti hau nonbaitetik dator, hau da, estereotipoak eta aurreiritziak sortu izanak baditu arrazoi eta eragile zenbait:

➤ **Androzentrismoa:**

Androzentrismoa munduaren perspektiba bat da non gizona gauza guztien erdian kokatzen den. Kontzeptu honen arabera, begirada maskulinoa balio duen bakarra da, unibertatsala, alegia, eta gizona da edozein gauza neurtzeko beharrezko erreferentzia.

Honen harira, sexu diskriminazioak ez du jatorria eskolan, baizik eta emakumeei eta gizonei ezarritako paper sozialaren konstituzio sozio-historikoan, eskolak gizartean gertatzen dena ez du besterik egiten eta. Argi dago eskola, gizartearen integratzailea dela, ez dagoela isolaturik, konektaturik baizik, eta sistema kulturalaren eta sozialaren parte da.

Eulalia LLedók dioen bezala:

“El androcentrismo es, ante todo, una perspectiva. Consiste fundamentalmente en una visión del mundo determinada y parcial, que considera que lo que han hecho los hombres es lo que ha hecho la humanidad, o a la inversa, que todo lo que ha conseguido la especie humana, lo han realizado los hombres. Consiste también en la apropiación por parte de los hombres de lo que han hecho y posibilitado las mujeres” (LLedo, 2004).

Modu honetan, emakume honek esandakoa aintzat hartuz, maskulinoa existitzen da, ez da sortzen, eta honen atzean dago maskulinoa erdigunea izatearen ideia, garrantzitsuena dena, gainontzeko guztia sortzeko oinarria, hain zuzen ere.

➤ **Sexu-genero sistema**

Aurrerago aipatu legez, askotan sexu eta genero kontzeptuak nahasten dira, baina desberdintasun garrantzitsuak daude horien artean. Lehen esan bezala, sexua ezaugarri fisiko eta biologikoen multzoa da, jaiotzen garenetik ditugunak eta naturalak direnez, aldaezinak direnak. Generoari dagokionez, ezaugarri psikologiko, sozial eta kulturalen multzoa da, eta hauek historikoak izan ohi dira, baita aldagarriak ere eta denboraren poderioz transformatzen joaten dira.

Bi kontzeptu hauek guztiz lotuta daude gaur egungo gizarteari, identitate patrioiak eraikitzen dituen horretara. Era honetan, emakumeek zein gizonek haientzat eraikitako patrio soziala jarraituko dute, hortaz, ondoriozta daiteke pertsonak jaiotzean duten sexuak geroko generoa baldintzatuko duela, inguruak era batean edo bestela erantzungo baitu eta horrek jokaera desberdinak izatera eramango du. Sexu-genero sistema sozial honek azaltzen du emakumeek pairatutako diskriminazio historikoak ez duela abiapuntua sexuan, baizik eta

generoaren eraikuntza sozialean, eta gaur egun dauden desberdintasunak emakumeen eta gizonen artean honen ondorio da.

Marina Subirats (2001) soziologoak ongien azaltzen du:

“...los seres humanos no se constituyen como mujeres u hombres únicamente en función del sexo. Esta es la base dada por la biología, pero sobre esta base se construye la identidad genérica, que tiene una naturaleza de carácter social. Las sociedades han creado sistemas de roles y patrones de comportamiento distintos para hombres y mujeres, prescripciones sobre lo que deben hacer y cómo deben actuar los individuos en función de su sexo. Estos patrones de comportamiento son los géneros”.

Soziologo honek sexu-genero sistema, pertsonak askatasun osoz garatzeko mugak jartzen dituen sistema bezala deskribatzen du, txikitatik umeeek oso markaturik eta itxiak diren patrioiak jarraitzen baitituzte. Gainera, rol sozialak desberdinak direla argitzeaz gain, inguratzen gaituen genero sistema honetan beti genero maskulinoa femeninoaren aurrean kokatzen dela ere argitzen du, emakumeen jokamoldeak, pentsamenduak eta harremanak mugatuz.

➤ **Patriarkatua**

Patriarkatua, sexu-genero sisteman oinarritutako antolamendu sozial mota bat da, non autoritate osoa gizonak duen. Familia barruan, aitak edo bestelako gizon batek izango luke autoritate hau, eta senide hau falta balitz, familiako beste edozein senideak (beti gizona) eskuratuko luke autoritatea. Botere honek ez dio erreferentzia egiten bakarrik familia barruan gizonak izan dezakeen autoritateari, baita gizarteko beste esparruetan duen botereari ere. Zergatik gure gizartean daude jabe gehiago gizonak direnak eta ez emakumeak? Zergatik zuzendari gehienak gizonak dira? Zergatik politiko gehienak gizonak dira? Zergatik gizonak zenbait ogibidetan soldata altuagoa dute emakumeek baino? Galdera hauen erantzunak gizarte patriarkal baten ideien atzean daude.

Victoria Sau-k (2000), psikologo katalanak era honetan definitzen du patriarkatua:

“Toma de poder histórica por parte de los hombres sobre las mujeres. El agente ocasional de esta toma de poder fue de orden biológico, pero se elevó a la categoría política y económica y pasa forzosamente por el sometimiento de las mujeres a la maternidad, la represión de la sexualidad femenina, y la apropiación de la fuerza del

trabajo total del grupo dominado, del cual el primero pero no único producto son los hijos.”

Antolamendu sozial honek historian zehar menderatzaile izan da Europan, baita Espainian azken mendeetan ere, emakumeak desabantailan utziz gizonen posizioarekiko. Egia da azken urteetan mentalitate aldaketa nabarmena egoten ari dela, emakumeek duela urte batzuk ezinezkoa izango liritekeen helburu batzuk lortu dituztelako. Hala ere, kalean, komunikabideetan, hizkuntzan beste batzuen artean, gizarteak jarraitzen du patriarkala izaten.

3.3.2. Estereotipo sexistak

Lehenago estereotipoa zer den azaldu legez, estereotipo sexistak ere errepresentazio kulturalak dira, baina hauek rol, jokaera eta ezaugarri desberdinak ezartzen dizkie bai gizonei eta bai emakumeei. Pertsonak nolakoak izan behar diren dioten ideietan eta iritzietan oinarritutako orokortzeak dira. Era honetan rol sozial desberdinak eraiki dira identitate maskulino zein femeninoaren inguruan, eta irudi topiko honetan zentratuz, bi sexuen harremanetako desberdintasunean oinarritzen den sistema bat ezarri da. Estereotipoek arazo handiak ematen dituzte eta horietako bat da umeei txiki-txikitatik transmititzen zaizkiela, eta beraz, nagusitan oso zaila da neska-mutilek barneratutako forma estereotipatu hauek aldatzea.

Estereotipo sexistak etxean eta eskolan transmititzen dira nagusiki, umeei denbora gehiena bertan igarotzen baitute. Horrenbestez, familiek eta irakasleek hezkidetzako formakuntza eta prestakuntza jasotzea oso garrantzitsua da, gaur egungo gizarteak ez dituen baloreak txikitatik umeei transmititzeko. Izan ere, kontuan izan behar dugu badaudela oraindik identitatea eraikitzen ari diren gazteetan eragin handia duten beste faktore batzuk faktore batzuk, horien artean komunikabideak eta publizitatea. Gaurko gizarteko umek zein gazteak etengabe daude kontaktuan telebistarekin, sare-sozialekin, mugikorrarekin, ordenagailuarekin eta horietan topa daitezke estereotipo sexista gehienak baita hauetan erabiltzen den hizkuntzan ere.

3.3.2.1. Hizkuntza

Gaztelera hizkuntza sexista da? Eta euskara? Hizkuntzak sexistak dira? Bata bestea baino sexistagoa al da? Feminizazioaren beharrari buruz hausnartzen denean hauek dira planteatzen diren galdera batzuk. Lehenengo galderari erantzun nahi izanez gero, logikoa da baietz erantzutea, gaztelera ba direlako emakumeei zuzenduriko mespretxuzko zenbait hitz eta esaldi. Hala ere, Álvaro García Meseguerrek (2001) baieztatzen du gaztelera hizkuntza

linguistiko gisa ez dela sexista. Ondorioz, argi dago sexismoa hizkuntza bakoitzari ematen zaion trataeratik datorrela, eta ez sistema linguistikotik, alegia. Errealitate hau, gizarte androzentrista batean hazi eta hezi izanagatik dator, beraz, erabileran jarri behar da arreta osoa eta aldaketaren abiapuntutzat hartu.

Euskarari dagokionez, euskara ez da genero hizkuntza bat, hau da, hitzak ez dira femenino edo maskulino banaketaren arabera sailkatzen, eta, beraz, luzaroan pentsatu izan da euskara ez dela beste hizkuntza batzuk bezain sexista. Baina honen inguruan ikertu duten profesionalek argi diote hizkuntzak ez direla sexistak edo ez-sexistak, baizik eta erabilerak dira sexistak direnak, neurri batean ala bestean. Horren adibide da Amelia Barquin (2008) (Mondragon Unibertsitateko irakaslea eta filologia hispanikoan doktorea), berak dionez, euskara genero hizkuntza ez izan arren, euskararen ere badago generoa, eta edozein hizkuntzan eman daitezke sexismoaren zantzuak.

Hizkuntzak etengabe aldatzen ari dira, bilakaera modu naturalean izanik. Gainera, hizkuntza bakoitzak bere ezaugarri propioak ditu, gainontzeko hizkuntzetatik bereizten dituztenak. Hizlari batek hizkuntzari ematen dion erabilerak hura transformatzea ahalbidetzen du; hitz batzuk erabili gabe geratzen direlako, eta momentuan behar diren neologismoak sortzen direlako (Calero, 1999).

Alde batetik, kontuan izan behar da hizkuntzen hiztegia eta adierazpen esaldiak munduaren ikuspegi androzentrista batetik sortuak izan direla, baita estereotipo sexistez beterik dagoen gizarte batetik ere. Asko dira sexuen arteko desberdintasunak gailentzen dituzten nahi gabeko moduak eta aldiak hizkuntza erabiltzeko orduan. Honekin batera, emakumeen aurka egiteko eta errealitate sexista bat eraikitzeke moduetako bat maskulino generikoaren gehiegizko erabilpena da, eta nahiz eta onarturik dagoen, emakumeak baztertzen dira eginkizun horretan (Calero, 1999).

Bestetik, biztanleriaren hein baten pentsamenduak ere eboluzionatu du, jokaera sexista batzuk alde batera utzi direlako, eta neurri batean, emakumearen irudiak antzinean baino askoz garrantzia handiagoa hartu duelako gaur egungo gizartean, baina hala eta guztiz ere, hizkuntzen erabilera sexista egiten jarraitzen da, García Meseguerrek (2001) esan zuen bezala: "la lengua seguirá siendo machista mientras lo sea la sociedad y viceversa".

3.3.2.2. Komunikabideak

Komunikabideek eta publizitateak ardura osoa dute emakume baten irudi estereotipatuaren eraketan eta erakusketan, hau da, gaur egungo gizartearekin bat ez datorren irudia, gizona gizaki sortzaile eta erabaki hartzaile bezala kokatzen dutena, hain zuzen ere. Ondorioz, emakumea objektu sexual edo konsumorako sujetu bezala agertzen ohi da edozein komunikabidetan, emakumeen irudia objektu apaingarri gisa erabiliz eta emakumeei urteetan zehar inposatu zaien rol tradizionalak erreproduzitzen (Carretero, 2014).

Telebistan ikus daitezkeen iragarki gehienetan emakumeek higiegi edo garbitzeko produktuak erakusten dituzte, gainera ohikoena da iragarkietan etxean azaltzea: “Los medios de comunicación difunden representaciones configurándose como un punto básico en la construcción de identidades” (García eta Núñez in Martín-Lirola, 2010).

Honek ere badu eragina adin txikiaren dutenengan, hau da, umeengan. Badira iragarkiak non jarrera eta jokaera estereotipatuak sustatzen dituzten, esaterako, jostailuen sailkapen estereotipatuaren kasuan; neskek etxeko lanak egiteko jostailuekin edo panpinekin agertzen dira, eta mutilak, aldiz, kotxeekin eta kirolarekin edota teknologiarekin zerikusia duten tresnekin agertzen dira (Carretero, 2014).

Bestalde, gaur egun influentzia handia duen beste esparru bat musikaren industria da. Argi dago, bizi garen gizarteko jarrera matxista dela, eta horrek eragina du ere musika sortzeko eta saltzeko orduan, emakumearen estereotipoa esplotatuz objektu sexual bezala. Ez bati, baina askotan gizonarekiko bestelako kokapena (menderatua) erakusten duten rola transmititzen dira; emakumearen jarrera pasiboak, menderatuak eta mespretxuzkoak, hau da, gizonari gustua ematen dizkietenak. Estereotipo hauek irudikatzen duten abestien letrek eta irudiek, gizarteari – batez ere, txikienei eta gazterari – emakumeen eta gizonen arteko harremanak izateko jarraibideak ematen dizkiete jokaera erasotzailea erakusten dutenak (Carretero, 2014).

Ezin da ahaztu, aurrekoarekin batera ere emakumeak tratatu txarrak nahi eta eskatzen duenaren mezua transmititzen dela. Hortaz, abeslariak, produktoreak, teknikariak eta abarrek diskriminazio sexista honen parte bihurtzen dira, azkenean aipatutako rol hauek onartuz eta barneratuz (Carretero, 2014).

3.4. Zergatik da beharrezkoa hezkidetzaren trataera eskolan?

Hezkidetzak, eskubide bat eta helburu hezigarria izateaz gain baloreetan oinarritutako hezkuntza edukien parte da, eta honen beharra dago etorkizuneko hiritarren hezkuntza integrala eta kritikoa lortzeko. Honekin batera, hezkidetzak gaur egungo hezkuntza sisteman garrantzia handia duen gaia da, ikaslegoari hezkuntza integrala eskainiz, errespetuzko bizitza baterako prestatzeko non bazterkeriak lekurik izango ez duen (Cabeza Leiva, 2010).

Nahiz eta gehienetan pentsatu ekitatiboki eta zilegi jokatzeko dugula, irakasle askok dioten bezala gaitz honi buruzko formakuntzak jasotzen edo konpartitzen dituztenean, irakasleek ikasleekiko dituzten espektatibak ez dira berdinak, hortaz, ikasleen artean oraindik ere desberdintasuna dagoela argi dago. Espektatiba horiek perspektiba desberdinak dituzte, esaterako, ebaluatzeko orduan edo gerora ikasleek unibertsitateko gradua aukeratzeko momentuan jasotzen duten orientabidea emateko orduan, eta baita lehenengo urtetan ere (Casanova, 2016).

Orobat, hezkidetzak bezala ikasleen garapen eta hezkuntza integrala ulertzen dugu, bai mutilena eta baita bi nekeena ere, arreta berezia kontrako sexuaren ezagutzari eskainiz eta bien arteko aberastasunaz gozatuz. Hezkidetzaren helburu nagusiak hurrengoak dira: estereotipo sexistek sortutako ideia okerrak zuzentzea, jarrera sexistekin akabatzen duen curriculum orekatu bat eskaintzea, eta gizabanako bakoitzaren gaitasun eta ahalmen indibidualak generoarekiko independienteki garatzea. Hezkuntza interbentzio hau baloreak eta jokaera etikoak sustatzean datza, gizarteko egunerokotasunean aurki daitezkeen elkarbizitzaren arazoaren aurrean pentsamendu eta jarrera kritikoa izateko (Cabeza Leiva, 2010).

Euskal Curriculumean zentratuz Zubiak Eraikitzen deituriko hezkidetzak taldeak (2008) hau dio: "Euskal Curriculumak oinarritzeko zeregina bete behar du eskubide zein aukeren berdintasuna bermatuak izan daitezkeen. Bereizketa gaindituko duen eta eraldatzailea eta sortzailea izango den Euskal Curriculumak, integrala izango dena genero perspektiba txertatuz. Integraltasunez landu beharra dago: hezitze, prestatze eta erreziklatzera lagundu eta bultzatuz, transformazio eta eraldakuntzarako bitarteko izanez, sexuen arteko erlazio berriak sortzera lagunduz, euskal emakumeok bizi dugun eta historian zehar bizi izan dugun gutxitze eta diskriminazioen ondorioz pairatzen duten aukera ezberdintasunei aurre eginez".

4. HELBURUAK ETA HIPOTESIAK

Hona hemen lan edota ikerketa honen helburu nagusiak:

- Hezkidetzaren taldearen praktika onak identifikatzea eta partaideak ezagutzea.
- Gaur egungo gizartean eta, batez ere, eskolan egoera zein den ezagutzea.
- Gai honekiko taldeko partaideek duten formakuntza zein den ikertzea.
- Hezkidetzaren taldeko partaideek oinarriko kontzeptuak ezagutzen eta definitzen dakiten aztertzea.

Helburu hauek guztiak kontuan izanda hurrengo hipotesi hauek planteatzen dira:

- ✓ Taldeko partaideek ez dute Hezkidetzaren inguruko formakuntzarik jaso.
- ✓ Gehiengoak hezkuntzarekin loturiko ikasketak egin edo hezkuntza arloan lan egin du.
- ✓ Hezkidetzaren inguruko terminologia ezagutuko dute baina ez dute jakingo egoki definitzen ezta antzekotasunak dituztenen artean desberdintasuna zein den identifikatzen.
- ✓ Taldea eta haren inplikazioa hasieratik gaur egunera arte handitu egin da.

5. METODOLOGIA

5.1. Testuingurua

Ikerketa hau Gasteizko eskolan batean eraman izan da aurrera. Eskola Gasteizko mendebaldeko auzo batean kokatzen da, eta zeharo publikoa dugu eskola hau, nazionalitate anitz eta ezberdin biltzen dituelarik. Orobat, ikastetxeak euskalduntzat jotzen du bere burua, eta, era berean, laikotzat, erlijioa ez baitago ikasgai moduan, betiere sinesmen eta fede ezberdinak osotasunean errespetatzen direlarik. Hortaz, honela definitzen da ikastetxearen hezkuntza sistema: euskalduna, laikoa, plurala, formakuntza integralaren aldekoa eta gurasoen inplikazioa bilatzen duena.

Eskolako historiari tarte txiki bat eskainiz, aipatzekoa da eskola hau 2007ko irailean abian jarri zela, lehenengo bi ikasturteak Pio Baroja behin-behineko eskolan eginez, auzoan eraikin berria egiten zen bitartean. Ondoren, 2007-08 ikasturtean, Haur Hezkuntzako bi gela ireki ziren. Beranduago, 2009-10 ikasturtean izugarri handitu egiten zen ikastetxea, eskaria handia izanik, eta hamabi gela zabaldu izan ziren. Azkenik, 2010eko urtarriletik aurrera Pio Baroja atzean utzi, eta, honela, eskolako eraikin berrira igarotzen dira orain arte, gaur den egunean 650 bat ikasle inguru hartzen duelarik.

Eskola bertako ikasleen guraso elkarte batekin elkarlanean aritzen da 2007. urtetik, **Amezti Txiki** deiturikoa. Bertan bazkideetako ordezkariak aurki ditzakegu baina eskola-komunitate osoarentzat lan egiten dute, eskola komunitatean bizi eta parte-hartzaile bat sortu nahian. Guraso elkarteko bazkide batzuk eskola kontseiluko partaide ere badira. Horri esker irakasleen eta guraso elkartearen arteko komunikazioa are errazagoa da eta arazo zein zalantza guztiak plazaratzen dira arazorik gabe. Beste ikastetxe batzuekiko harremanari dagokionez, hainbat ekintza koordinatzen dituzte unearen eta gaitasunaren arabera: Haizea Mariturri guraso elkartearekin eta Miguel de Cervantes eskolarekin.

Elkarte honen barruan **Hezkidetza taldea** kokatzen dugu non printzipiorik nagusienetarikoa bat **boluntaritasuna** den: partaideak guztiz boluntarioak dira. Hortaz, modu askotan lagundu daiteke; zuzendaritza batzordean parte hartuz, eskola-orduz kanpoko ekintzak koordinatuz, lantegiak eta hitzaldiak antolatuz, lan taldeetan parte hartuz, eta unean uneko ekintzak antolatuz, bakoitzak ahal duenaren eta interesatzen zaionaren arabera.

5.2. Lagina

Ikerketa honetan aipatu berri dudan Hezkidetza taldeko bost partaidek hartu dute parte. Esan beharra dago, partaide hauek emakumeak eta eskolako amak direla guztiak, gainera, horietako bat eskolako irakasle gisa lan egiten du ere. Hauek ikerketa egiterako orduan, prestutasun izugarria erakutsi dute lehenengo unetik, eta beso zabalik hartu naute haien bileretan beste partaide bat izango banintz bezala nire ikerketa-lana ahalik eta modu atseginean eta errazenean aurrera eramateko. Honekin batera, partaideen esperientzia profesionalari dagokionez, aipatzekoa da denek hezkuntzarekiko lotura duten ikasketak egin dituztela, edo hezkuntza arloan lanean ibili direla. Bestalde, adinari dagokionez, zortzi urteko desberdintasuneko lagin batean sartzen dira denak, hau da, 34 urtetik 42 urtera arte, eta denen seme-alabak haur-hezkuntzakoak dira.

5.3. Datuak biltzeko tresna (*ikus. 1.Eranskina: Elkarrizketak, 39.or*)

Lan hau aurrera eramateko ikerketa etnografikoa egin ohi da, hau da, talde jakin batek izan ohi dituen praktika, errepresentazio, ekimen eta ezagutza teoriko eta praktikoak biltzen dituen ikerketa. Era honetan, Anthony Giddens (2004) soziologoak garbi eta garbi azaltzen du ikerketa etnografiko baten zeregina:

“La etnografía es el estudio directo de personas o grupos durante un cierto período, utilizando la observación participante o las entrevistas para conocer su comportamiento social. el estudio directo de personas o grupos durante un cierto período, utilizando la observación participante o las entrevistas para conocer su comportamiento social.”

Ikerketa hau aurrera eramateko momentuko eta aurrez aurreko elkarrizketa bat erabili da. Elkarrizketak garatzeko hogeit hamar galdera inguru izan ditu, hala ere, kontuan izan beharra dago partaidearen arabera galderak gehitu edota aldatu izan ditudala, eta hau partaideek eskainiko luketen intereseko informazioaren arabera egin da. Gauzak horrela, partaide guztientzat elkarrizketa lau ataletan banatu izan dut: lehenengoa ibilbide profesionalari buruzkoa, bigarrena hezkidetzako taldearen ingurukoa, hirugarrenean hezkidetzako oinarrizko kontzeptuak definitzea eskatu zaie eta, azkenik, taldearekiko duten atxikimenduaren inguruko galderak egin dira.

5.4. Prozedura

Esan beharra dago Lehen Hezkuntzako graduako azken bi praktikaldiak ikastetxe honetan burutu ditudala eta horren ondorioz, oso erraza izan dela ikastetxearekin eta gurasoekin kontaktuan jartzea. Gainera, Hezkidetza taldeko eskolako arduraduna azken praktikaldiko tutore izan dut, gorputz hezkuntzako praktikaldiarena, alegia.

Hala eta guztiz ere, nahiz eta nire praktikaldiko tutorearen bitartez gurasoen kontaktua jaso ahal izan, modu formalago batean gurasoekin kontaktuan jarri nahi izan dut, beraz, eskolako zuzendaritza taldearekin bildu eta lanaren nondik norakoak azaldu eta gero, arazorik gabe Hezkidetza taldeko partaide batekin harremanetan jarri zen eta nire kontaktua erraztu zion. Ziztu bizian, taldeko partaide bat nirekin kontaktuan jarri eta bileren informazioa eman zidan. Esan beharra dago, bilerak modu informalean egiten direla, taberna batean, zehatz mehatz. Elkarrizketatutako partaide guztien elkarrizketak banan-banan eta aurrez-aurre egin dira, bat izan ezik, taldeko aita bakarrari e-mailaren bitartez egin behar izan zaio biltzeko aukerarik egon ez delako.

5.5. Datu analisiak

Egindako elkarrizketetan metodologia kualitatiboa erabili da. Metodologia kualitatiboaren bitartez, gehienetan “zergatik” galderari erantzuten zaio eta beraz, emaitzak ezin dira zuzenean neurtu eta horiek interpretatu behar dira, erantzunak oso subjektiboak baitira. Izan ere, emaitza interpretatu beharra dago eta orduan, bakoitzak modu ezberdin batean erantzungo du.

Hau guztia kontuan izanik, elkarrizketa honen bitartez, ikastetxe honetan Hezkidetza taldea honetan zenbat inplikatzen den eta zer-nolako garrantzia ematen dion jakin nahi izan da. Horrela, ideia orokor bat lortu da Hezkidetza trataeraren egoeraren inguruan. Horretarako, aurretik aipatutako elkarrizketen bitartez, gai honen inguruko beraien formakuntza eta interes maila zenbaterainokoa den galdetu zaie. Gainera, horretaz gain, lanean zenbat urte daramatzaten ere galdetu zaie. Izan ere, askotan uste da urte gutxi lanean eramateak lorpen gutxi izatera eramaten duela, baina guraso talde honek uste horiek guztiz apurtzen ditu, bi urtetan lorturikoa asko da, eta eskola askoren guraso elkarteetan ereduak izan daiteke.

6. EMAITZAK

Hezkidetzeta taldeko sei partaideei egindako elkarrizketak aintzat hartuz, metodologia kualitatiboa jarraituz zortzi kategoria desberdin analizatuko ditugu:

- ❖ *Partaideen ikasketak*
- ❖ *Hezkidetzako formakuntza*
- ❖ *Hezkidetzeta taldearen sorrera*
- ❖ *Eskolarekiko harremana*
- ❖ *Gurasoekiko harremana*
- ❖ *Kontzeptuen ezagutze maila*
- ❖ *Taldearekiko atxikimendua*
- ❖ *Etorkizuneko ikuspuntuak*

1. Partaideen ikasketak

Partaide elkarrizketatuen ikasketei erreparatuz gero, ondoriozta daiteke denek hezkuntzarekin lotura duten ikasketak egin dituztela, hau da, pertsonekin lan egitean datzanak. Ikasketen artean magisteritza (2), gizarte langintza (1), eta gizarte hezkuntza (1) aurki ditzakegu, eta honek badu eragina orain hezkidetzeta taldeko baten parte izatean. Beraz, partaide hauek gure gizarteak dituen hutsuneak identifika ditzakete, hezkuntzaren egoera hurbiletik ezagutzen dutelako ikasketak garaitik, eta hau hezkuntzaren egoera aldatzeko grinaren sortzaile izan daiteke.

Bestalde, badago partaide bat Historiako ikasketak egin dituen, baina hezkuntzarekin ere esperientzia izan du Afrikako unibertsitate baten irakasle gisa jardun zuelako. Hortaz, nahiz eta ikasketak hezkuntzarekin zerikusirik ez izan, geroko ogibideak bai izan du zerikusia honekin. Bigarren partaide baten ikasketek ere hezkuntzarekin ez dute zerikusia izan hezkuntzarekin, baina ahalik eta guztiz ere, erizaina izanik pertsonekin lan egiteak ere gizartearen gabeziak identifikatzeko aukera ematen du. Izan ere, aipatu beharra dago bi partaide hauek (emakumeak biak), mugimendu feministaren militanteak izan direla, eta horrek gaur egun amak izanik hezkidetzeta talde batean egotearen arrazoia argitzen du.

2. Hezkidetzako formakuntza

Formakuntza formalari dagokionez, bi partaidek jaso dute hezkidetzaren inguruko formakuntza, bata udaletxeak eskainitako kurtsoen bitartez, eta bestea EHU-k eskainitako ikastaro baten bitartez. Bestalde, badago partaide bat, Hezkidetzeta taldearen “liderra” dena, zeinak kooperazio internazionalak egin dituen, baita genero perspektibako eta kulturartekotasuneko ikastaroak ere.

Bestalde, formakuntza ez-formalari dagokionez, bi partaidek militatu izan dute Gasteizko Mugimendu Feministan non berdintasunean hezteko printzipio defendatu duten. Hezkuntza ez-formalarekin jarraituz, badago beste partaide bat zeina hezkidetzarekin inguruko hitzaldietara joan dena, besterik ez. Honetaz gain, gainontzeko guztiek hauekin batera ere “autodidaktak” izan direla baieztatu daiteke, denek aipatu omen dute haien kabuz etxean irakurriz, eta informazioa bilatuz euren ezagutzak handitu eta hobetu dituztela.

3. Hezkidetzaren sorrera

Hezkidetzaren historiari arreta jarriz, ondorioztatu daiteke bi emakumek sortu zutela taldea duela bi urte gutxi gorabehera, 2016-2017. ikasturtean, hain zuzen ere. Bi emakume hauek deialdia egin zuten eskola mailan gurasoak animatzeko eta taldean inplikarazi egiteko, eta urte bat geroago (pasa den ikasturtean 2017-2018) 4 ama eskuratu zituzten. Azken urte honetan, berriz, partaide bakarra lortu dute, baina azken hau aita da, taldea mistoa izatea eragin duena.

4. Eskolarekiko harremana

Partaide guztiek galdera honetan erantzun berdina izan dute, hau da, taldeak duen harremana eskolarekiko oso ona dela. Alde honetatik, aitortu omen dute eskolak prestutasuna uneoro eta lehenengo egunetik erakutsi duela, beti laguntzeko eta haien alde egiteko gogoz. Bereziki bi elkarrizketatuek adierazi dute oso talde ona sortu dutela gurasoen eta eskolaren artean, batek “elkar elikatzen” direla dio, eta beste batek “tandem” eta “alianza” hitzak erabili ditu metaforikoki eskola eta hezkidetzaren kontzeptu bakar batekin adierazteko.

5. Gurasoekiko harremana

Gurasoen harremana eskolarekiko dagoen harremanarekin alderatuz, azken hau ez da hain ona, honen barruan erresistentziak topatu daitezkelako. Alde batetik, taldean sartu den azkeneko batek gurasoekiko harremana “hain ona” ez dela dio, ba daudelako haien alde egiten duten gurasoak, baina baita guztiz kontra egiten dutenak ere, eta kontra egiten dutenek ezezagunari beldurra izatearen ondorioa dela ziurtatzen du.

Bestalde, taldeko beterano batek argi utzi du erresistentziak daudela eta egonen direla guraso zenbaiten partetik: *“lo personal es político y cuando se cuestiona la forma de educar de una familia estamos hurgando donde más duele, entonces eso es lo peligroso y el que va a ser un gran reto para nosotras”*. Hortaz, guraso horiek erasotutako sentitzen dira haien hezteko modua kuestionatzen denean, agian ez delako berdintasunean hainbeste

oinarritzen haiek uste duten bezala, eta ondorioz, hezkidetza taldearen proposamenak inposizioak bezala ikusten dituzte euren burua menderatua ikusten dutelako.

6. Kontzeptuen ezagutze maila

➤ **Hezkidetza**

Kontzeptu hau definitzeko orduan partaide gehienek zailtasunak izan dituzte, nahiz eta kontzeptuaren esanahia argi eduki zaila egin zaie hitzak bilatzea definizio itxi bat osatzeko. Bi elkarrizketatu Iratxe Suberviolak (2012) emandako definiziora hurbildu dira:

- *“La coeducación es la transformación de la educación en la escuela vinculada a una igualdad de oportunidades”. (Ikus. 1.Eranskinean: Elkarrizketa 1, 39.or)*
- *“Cuestionar quienes son y desde ahí coeducar sin roles de género, para que puedan tener la oportunidad de poder ser y romper esa disociación que existe en nuestra sociedad”. (Ikus. 1.Eranskinean: Elkarrizketa 4, 45.or)*

Bestalde, lehen esan bezala, gainontzekoek emandako definizioak nahiko korapilatsuak edo xumeak izan dira, berdintasuna denek aipatzen dute, baina kasu batzuetan adarretatik joaten dira definizioa guztiz itxi barik:

- *“Hezkidetza da hezkuntzan edo eskolan sexua eta generoa ez erabiltzea, jaiotzen garenetik garelako emakumeak edo gizonak baina gero horrek ezin du gure kapazitateak baldintzatu, ezta pentsatzeko modua. Beraz, materialak, jolasek eta abarrek baldintzatzen gaituzte...” (Ikus. 1 Eranskina: Elkarrizketa 2, 41.or)*
- *“Educar igual a los niños y a las niñas”. (Ikus. 1.Eranskina: Elkarrizketa 6, 50.or)*

➤ **Sexua eta Generoa**

Alde batetik, sexua definitzeko orduan, partaide guztiek argi izan dute bere esanahia zein den, eta era horretan, erraza egin zaie definizioa osatzea. Marko teorikoko sexuaren atalean (Ikus. 3.1.1. Sexua atala, 2.or) sexua halaxe definitzen dute Ajamil, Fuchs eta Lucinik (1990, 18.or): “El término sexo se reserva para la descripción de la diferencia biológica”. Elkarrizketatuek ere antzeko definizioak eman dituzte, hau da, fisikoari edo biologikoari erreferentzia egiten diotenak:

- *“A nivel cultural hablamos de sexo como algo físico”. (Ikus. 1.Eranskina: Elkarrizketa 1, 39.or)*
- *“Sexua da hori jaiotzen gara eta biologikoki emakumeak ala gizonak gara”. (Ikus. 1.Eranskina: Elkarrizketa 2, 41.or)*
- *“Sexua da sortzen garenean har edo eme”. (Ikus. 1.Eranskina: Elkarrizketa 3, 43.or)*

- “El sexo son nuestros genitales”. (Ikus. 1.Eranskina: Elkarrizketa 4, 45.or)
- “Sexua genitalekin lotzen dugu”. (Ikus. 1.Eranskina: Elkarrizketa 5, 48.or)
- “El sexo creo que tiene que ver más con lo físico (hembra o varón)” (Ikus. 1.Eranskina: Elkarrizketa 6, 50.or).

Bestalde, generoari buruz aritzerakoan definizioa hain argia ez dela, sexuarenarekin alderatuz. Kasu honetan “construcción cultural” edo “identidad personal” bezalako terminoak erabiltzen dira generoa zer den azaltzeko. Beraz, esan daiteke definizioak Subiratsek (1994) emandakoarenarekin (Ikus. 3.1.2. atala: Generoa, 4.or) konparatuz nahiko antzekoak direla, ezaugarri sozialak aipatzen baitira guztietan.

➤ **Estereotipoa eta aurreiritzia**

Estereotipo eta aurreiritzien arteko desberdintasuna gogora ekarri nahirik Gonzalez-ek (1999) emandako definizioak izango ditugu jo puntu, hau da, estereotipo bezala ulertzen duguna da talde sozial bati buruzko sinesmen herrikoia, non oinarrizko akordio bat dagoen. Aurreiritziari dagokionez, konnotazio negatiboa duen talde sozial bati buruzko sinesmen eta iritzien multzoa da. Hala eta guztiz ere, elkarrizketatuen erantzunen artean ez da topatzen bi kontzeptu hauen desberdintasuna zein den: estereotipoetan akordio herrikoia dago, aurreiritzietan norberaren sinesmen pertsonalak ageri dira. Era honetan, nahiz eta “etiketa” eta “eraikuntza soziala” aipatu, bi kontzeptu hauekin erabateko lotura dutenak, haien arteko desberdintasuna ez dute identifikatu.

➤ **Hizkuntzak sexistak dira? Zer aldatu behar da gizartea edo hizkuntza lehenago?**

Gaztelera zein euskara González Meseguerrek (2001) eta Amelia Barquinek (2008) baieztatu dute hizkuntza hauek ez dira sexistak, baizik eta ematen zaion erabilpena dela sexista. Sei elkarrizketatuen artean, bostek lehenengo galdera entzun bezain laster baietza eman dute, hau da, hizkuntzak sexistak direla baieztatu dute. Hala ere aipatu beharra dago horietako bat, momentuan iritzi aldatu zuela sexista dena erabilpena dela ziurtatuz, beraz, ondoriozta daiteke lehenagotik galdera honen inguruan ez duela hausnartu elkarrizketatu honek.

Bestalde, bakar batek esan du hasieratik hizkuntzak ez direla sexistak, gizarteak ematen dion erabilpena dela sexista dena, hortaz, bigarren galderari ezin izan dio erantzunik eman, hizkuntzaren eta gizartearen artean zirkulu bat dagoelako, eta baten aldaketak bestearengan eragina du eta alderantziz. Gainontzekoek, hau da, hizkuntzak sexistak direla

esan dutenek lehenengo aldaketa gizarteak egin behar duela aitortu dute hizkuntzek sexistak izateari utzi ahal izateko.

7. Taldearekiko atxikimendua

Alde batetik, zergatik diren Hezkidetzako taldeko kideak galdetzean, gehien aipatu diren arrazoiak hurrengoak izan dira: interesa (pertsonala eta profesionala), beharra eta kezka. Hiru hitz hauek izan dira erantzun guztietan errepikatu direnak, eta beraz, taldeko kide izatearen arrazoi nagusienak.

Honetaz gain, taldeak maila pertsonalean bakoitzari zer ematen dion galdetu zaie. Erantzunen artean, nahiz eta antzekoak izan bakoitzaren intentzioan, termino desberdinak erabili ohi dira, esaterako, "tribu" kontzeptua behin baino gehiagotan agertu da, babesleku gisa ikusten baitute taldea. Honekin batera, esperantza pizturik mantentzen duen borroka bat bezala ere deskribatzen dute taldearen zeregina, hau da, borroka berdinean doan eraikuntza politikoa.

8. Etorkizuneko ikuspuntuak

Etorkizunari begira, erantzun guztiak ez dira berdinak izan, batzuk optimistagoak izan baitira, eta beste batzuk, berriz, pesimistagoak.

Ikuspegi positiboa izan duten erantzunei erreparatuz, aitortu beharra erantzun baikorrak ezkorrek baino gehiago izan direla. Sei elkarrizketatuen artean bostek argi ikusten dute Hezkidetzako taldea aurrera doala, gainera, handitzeko aukerarekin, hau da, partaide gehiago honetara gehituz. Hala eta guztiz ere, erantzun hauetan kezka ere agertu izan dira, horien artean diru-laguntzak eta jendearen inplikazioa. Gaur egun zaila egiten zaie diru-laguntzak lortzea eta hauetaz gozatzea, beraz, etorkizunean hauen laguntza izatearen ezjakintasunak kezka sortzen dio bati. Bestalde, bi kidek esaten omen dute oso zaila dela jendearen kausa honetan inplikatzeko, lan boluntarioa izateak denbora inbertitzea suposatzen du, eta denak dira gurasoak, beraz, askotan denbora faltagatik ez dute horrelako konpromezurik hartzen, eta beraz, jendea ez da inplikatzeko. Izan ere, erantzun hauetan esperantzaren aipamena egon da, eta partaide baten esanetan, taldeak aldaketak pairatu beharko ditu aurrera joateko, batzuk ateraz eta beste berri batzuk sartuz, ikuspuntu desberdinak eta berritzaileak halabeharrezkoak direlako.

Azkenik, elkarrizketatu bat nahiko pesimista adierazi da erantzuna emateko orduan. Honek taldearen etorkizuna nahiko iluna ikusten duela aitortu du, aurretik azaldutako arrazoiagatik batez ere.

7. ONDORIOAK

Behin elkarrizketen emaitzak analizatuta izanda, hauen ondorioak nolakoak izan diren jakitera ekingo zaio. Horretarako, 4. atalean ezarritako hipotesiak baieztatu edo ezeztatuko dira, baita lehenengo bi helburuak lortu diren ere (*Ikus. 4.atala: Helburuak eta Hipotesiak, 17.or*):

1.HELBURUA: Hezkidetza taldearen praktika onak identifikatzea eta partaideak ezagutzea.

Planteatu izan den lehenengo helburu honi dagokionez, emaitzetan zein eranskinetako elkarrizketetan ikus daitekeenez taldeko praktika onak identifikatu izan dira, beraz alde honetatik helburua bete da. Hala eta guztiz ere, aipatu beharra dago taldean emakume musulman bat dagoela eta ez dela egon aukerarik berarekin egoteko eta ezta berari elkarrizketarik egiteko, beraz, alde honetatik ezin izan da hezkidetza taldeko partaide guztiak ezagutu. Dena den, emakume honek ez du partaide aktibo bat bezala jarduten, taldeak hartutako erabakien zein emandako proposamenen alde egiten du askotan eta behar izanez gero laguntzaile gisa jarduten du, baina erabaki garrantzitsuetan ez du parte hartzen. Azkenik, esan beharra dago beste etnia bateko pertsona bat taldean egoteak ere kanpokoak diren gurasoei begiak irekitzean eta ikuspuntua aldatzean lagundu dezake.

2.HELBURUA: Gaur egungo gizartean eta, batez ere, eskolan egoera zein den ezagutzea.

Bigarren helburu hau lortu dela esan daiteke, hau da, marko teorikoan islatu den bezala, hezkidetzak gaur egungo gizartean duen kokapena zein den erakutsi izan da. Bestalde, eskolari dagokionez, emaitzetan baieztatu izan da eskolak honen alde egiten duela inolako dudarik gabe, eta hortaz, eskolarekiko harremana oso ona izan da lehenengo egunetik. Gauzak horrela, ez da berdin gertatzen eskolako gainontzeko gurasoekin, guraso asko oso kontrakoak agertzen baitira, eta hezkidetza taldearen aurka egin izan dute askotan, haien proposamenak hondoratu nahian. Hala ere, badira guraso asko hezkidetzaren aldekoak agertzen direnak, eta garrantzitsua da aipatzea gero eta gehiago direla.

Guzti honetatik ondoriozta daiteke, gizartea oraindik ez dagoela prest hezkuntzak aldaketak pairatzeko. Urteetan zehar uste izan da eskola mistoak berdintasuna ekarri duela ikasleen artean, baina argi dago mutilak eta neskek elkarrekin egotea ez dela nahikoa, oraindik ere desberdintasunak ematen baitira generoa dela eta. Ruiz Elizalde (2012) dion bezala, azken urteetan eskolei hitz egiten denean dibertsitateari buruz hitz egiten da, eta ez zaio garrantzirik ematen ikasleen artean dauden desberdintasunei. Eskolak gizartean dauden balore sozialez kutsaturik daude guztiz, baina sexismoak eta desberdintasunak

bizirauten dutela argi dago eta honek zerikusi handia dauka identitate maskulinoa zein femeninoa eraikitzeke orduan (Aguado in Ruiz Elizalde, 2012).

1.HIPOTESIA: Taldeko partaideek ez dute Hezkidetzaren inguruko formakuntzarik jaso.

Hipotesi honi dagokionez, ez da bete. Sei partaideetatik hiruk formakuntza formala jaso izan dute. Gainontzekoek nahiz eta formakuntza formalik jaso ez izan, autodidaktak izan dira eta haien kabuz joan dira honen inguruko ezagutzak bereganatzen, betiere formakuntza ez-formalaren bitartez (liburuak, hitzaldiak...). Ondorioz, familia hauek Hezkidetzan era batean edo bestean formakuntza jaso dutela esan daiteke, etxeetan heitzeko modu hau aurrera eramateko haien seme-alabekin .

Hezkuntza arloan, Ana Cabeza Leivak (2010) dion bezala, curriculum ofizialean oraindik ere curriculum ezkutu batek bizirauten du, non jokaera eta estereotipo sexistak transmititzen jarraitzen diren modu kontziente edo inkontziente batean, eta gero jarrera hauek gizartean islaturik ikusten dira. Zentzu honetan, familien papera irakasleena bezain beharrezkoa da berdintasunean oinarritzen den hezkuntza bat lortzeko estereotipo eta jarrera sexistetatik at.

Andaluziako Emakumearen Institutuan (IAM), bertako zuzendariak, Silvia Oñatek (d.g.) azpimarratu izan du familien parte hartze aktiboaren garrantzia haurtzaroan, berdintasuneko hezkuntza baloreak sustatzeko eta bazterkeriarik eta genero indarkeriarik gabeko gizarte bat sortzeko. Berak esan duen bezala “comprometerse con la igualdad es comprometerse con el futuro”. Zuzendari honek baieztatu zuenez, familia da sozializatzaile nagusia, rolen eta estereotipoen ezarpena zehazten duena, hau da, familiek ez dute heitzen bakarrik, haiek ere influentzia botere handia dute beste sozializatzaile batzuk aukeratzeko orduan, esaterako, komunikabideak, literatura, zinema, jostailuak eta abar.

2.HIPOTESIA: Gehiengoak hezkuntzarekin loturiko ikasketak egin edo hezkuntza arloan lan egin du.

Bigarren hipotesi hau ia guztiz bete da, batek izan ezik, esparru formalean gainontzeko guztiek hezkuntzarekin loturiko ikasketak edo ogibideak izan dituztelako, horietatik irakasleak, gizarte langileak eta gizarte hezitzaileak izanik.

Hezkuntzan esperientzia izateak nork bere burua jokoan jartzera eramaten du, azken finean ez delako heitzen jakitetik, baizik eta izatetik. Gonzálezek eta Solanok (2012), hezkuntzan jarduteak eta formatzeak pertsona bere osotasunean konprometitzen du,

hezkuntza ez baita ezagutzen transmisioan oinarritzen, bizitzan zehar aurkituko diren oztipoak aurre egiteko behar diren baloreak eskuratzean baizik.

Modu honetan, aurretik aipatu den bezala hezkuntzan esperientzia profesionala izateak eragin zuzena du etxean hezitzeko moduan, familia eta eskola sozializatzeko oinarritzko iturriak direlako eta biek lan egin behar dutelako norbanakoaren garapen integralean (Ceballos, 2014). Hala ere, gaur egun familien hezkuntza etxeen intimitatean ezkututzen eta autorregulatzen da. Hortaz, eskolako hezkuntza esparru publikoan kokatzen den heinean, etxeko hezkuntza esparru pribatuan kokatzen da. Horrenbestez, Esperanza Ceballosek (2014) dio arreta handiz behatu behar dela familia barruan gertatzen dena, eta baita hezkidetzaren maila kasu bakoitzean non dagoen identifikatzea ere.

3.HIPOTESIA: Hezkidetzaren inguruko terminologia ezagutuko dute baina ez dute jakingo egoki definitzen ezta antzekotasunak dituztenen artean desberdintasuna zein den identifikatzen.

Hirugarren hipotesi honi dagokionez, emaitzen atalean analizatu den bezala, elkarrizketatuak nahiko hurbil ibili dira orokorrean adituek emandako definizioetatik. Nahiz eta definizio itxia eta osoa ez eman, gehienek adituak emandako definizioan ageri diren hitz gakoak izendatu dituzte, oinarritzkoak izan diren kontzeptuak, alegia. Hasiera batetik, ez zen espero hain lotura handia duten kontzeptu guztiak hain ondo identifikatzea, desberdintzea eta definitzea, beraz, hipotesi hau okerra dela baieztatu daiteke definizioei dagokienez. Egia da antzekotasunak dituzten terminoen arteko desberdintasun guztiak ez dituztela identifikatu, batez ere, estereotipo eta aurreiritziaren artekoan; Gonzálezek (1999) argi azaldu duen bezala, estereotipoen kasuan oinarritzko akordio herrikoa dago, eta aurreiritzietan ez da beharrezkoa horrelakorik. Kasu honetan, taldeko inork ez du desberdintasun hau topatu baina ongien zekiten estereotipo edo aurreiritzi bat zer den eta zertan datzan.

Hala ete guztiz ere, aipatzekoa da formakuntza jaso duten gurasoek emandako definizioak gainontzekoek emandakoak baino zehatzagoak dira, baita osatuagoak ere. Honen harira, eman diren definizio zehatzago hauen egituraren parte izan dira “aukera berdintasuna” eta “garapen integrala” bezalako terminoak.

Taldeko partaideek haien elkarrizketetan aitortu izan dutenez, hezkidetzako formakuntza gurasoek soilik ez dute jaso behar, irakasleek ere horren behar handia baitaude. Talde honetan eskolarekin bestelako harremana duen kide bat dago, aldi berean eskolako ama eta irakaslea delako. Argi utzi du bere hitzetan, nahiz eta diagnostiko bat izan, proiektua aurkeztua eta onartua izan eta gogo handia izan ez dugula ezer lortuko irakasleak hezkidetzak formatuak ez badaude.

Eskolan honen inguruko formakuntza jaso duen bakarra bera da, eta eskolako Hezkidetzatza taldeko arduraduna delako, bestela baliteke ere formakuntza jaso ez izana. Hala ere, ezinezkoa da formakuntza eskola maila osoan jasotzea, ez baitago diru-sarrerarik hori ordaintzeko, ezta laguntzarik ere. Beraz, modu bakarra da nor bere kabuz formatzen joatea, baina kontuan izan behar dugu hori eskolatik kanpoko zeregina bihurtzen dela, eta beraz, denbora libreak behera egingo duela. Azken hau izan ohi da formakuntza faltaren arrazoietakoa bat, elkarrizketatutako irakasleak ondo azaldu baitu berak ere ez duela izan denborarik hezkidetzako ikastaroan buru belarri egoteko berak nahiko lukeen bezala, baina irakasleaz gain, ama ere bada, etxean lan egin behar da eta askotan denbora faltagatik etorkizunerako beharrezkoa dena alde batera uzten da. Eta kide honi gertatu zaion bezala, beste edozein gurasori gerta litzaioke, eta errazena da inplikazio handirik ez egitea eta ardura handirik ez hartzea, eta azken honi arreta ez jarriz gero, gizarteak duen gabeziak aurrera darrai.

Azken honi dagokionez, eskolan aurki daitezkeen erresistentziak eta oposizioak ezin dira ulertu eskola bakoitzak duen mikropolitika analizatu gabe, zeina irakasleek hezkidetzarekiko duten sentsibilitatea behatzeko giltza den (Vega Caro eta Piedra de la Cuadra, 2009). Ikerketa anitz egin dira irakasleek hezkidetzarekiko dituzten jarrereri buruz, eta horietako batean baieztatu izan da irakasleak sexistagoak direla egiteari uzten ez diotenagatik, egiten dutenagatik baino, hau da, sexistagoak direla omisioagatik, ekintzaile izateagatik baino (Bonal in Vega Caro eta Piedra de la Cuadra, 2009).

Izan ere, eskolan berriz ere begirada jarriz, baieztatu daiteke ez dagoela baliabide nahikorik ikasleak hezkidetzan hezitzeko. Materialari, musikari eta patioari, beste batzuen artean, erreparatzen badiogu laster somatuko dira emakumeen erreferenteak, eta gune sexistak desagertuko dira. Gainera, nahiz eta eskolak gogor ekin data esanguratsuenetan (M8, A25...), ez da nahikoa, berdintasuna eguneroko gauza baita.

4.HIPOTESIA: Taldea eta haren inplikazioa hasieratik gaur egunera arte handitu egin da.

Gaur egun, eskolak bizitzen ari diren errealitatean dibertsitate handiko familiak aurki daitezke, hauen testuinguruak oso dibergenteak direlako. Ezin da ahaztu familia eta eskola direla sozializatzaile nagusiak eta umeen garapenetan eragin zuzena dutela. Beraz, bi sozializatzaile hauek elkarlanean aritzen ez badira helburu eta espektatiba komun batzuk lortzeko, haurren bilakaera mugaturik egongo da (De León, 2011).

Aurrekoa kontuan izanik, hipotesi hau guztiz bete da elkarrizketatu guztiek baietza eman dutelako. Nahiz eta taldeak bi urte bakarrik izan, hasieratik gaur egunera arte handitu dela ziurtatu digute taldearen bi sortzaileek. Gutxinaka gurasoak animatzen joan dira, amak,

hain zuzen ere. Hala ere, azken inkorporazioa (aurtengoa) taldeko lehen aitarena izan da. Azken honek aldaketa handia izan da taldearentzat, emakumeen taldea izatetik, talde mistora izatera igaro baita. Taldea mistoa izateak, hau da, gizon baten irudia egoteak “emakumeen borroka” dela pentsatzen zuten gizon askori begiak ireki dizkie.

Gizonen boterearekiko kontraesanak analizatzeko oso erabilgarria den pertzepzio bat ematen du feminismoarekiko duten harremanaren inguruan. Gizonek izan dituzten eta orain ere dituzten botere zein abantailak dira feminismoaren aurka kokatzearen arrazoiak, indibidualki zein kolektiboki. Hala ere, gero eta gizon gehiago daude feminismoaren alde jotzen dutenak, eta geraldian honen barnean teoriara eta ekimen feministara gehitu dira. Badaude zenbait arrazoi gizonak azken denboraldian feminismoaren ekintzaileak izatera bultzatu izana azaltzen dutenak, esaterako, lagunaren influentzia, familiaren influentzia, beste gizon batzuetatik pairatutako zapalkuntza, opresio komunaren sentipena, gizona izateak ematen dituen abantailekiko erru sentimendua, gizonak ezartzen duten indarkeria edo soilik duintasunagatik (Kaufman, 1999).

Egutegiko martxoak 8-ko tirainak, #MeToo haizeak lagunduta, ez du bakarrik mugimendu feministara gehitu ziren emakume guzti horien kontzientziak astindu, baita gizon askorena ere bai, mugimenduan haiek ere parte hartu behar zutela pentsaraziz. Mugimenduan gizonak ez dira aktore printzipalak izan behar, bigarren mailako pertsonaiak baizik, emakumeak izan behar baitira protagonista bakarrak. Hortaz, gizonak borroka honetan era batean aliatu gisa har daitezke, beharrezkoak diren aliatuak (Mariño, 2019).

8. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Azken atal honetan, ikerketan honetan aurkitu diren oztopoak adieraziko dira, baita hauek saihesteko edo hobetzeko hobekuntza proposamenak. Horretarako lehendabizi lana aurrera araman ahala aurkitu diren oztopoak azaltzeari ekingo da, hauen arrazoiak eta konponbideak aurkitzeko asmoz. Honen ostean, eta azkenik, ikerketa luzatzeko eta hedatzeko hobekuntza proposamenak aipatuko dira.

Hasteko, landa lan hau ikerketaren lehendabizikoa izan da, eta beraz, muga batzuk aurkitzea saihestezina izan da. Alde batetik, landa lanaren lagina nahiko murrizta izan da, nahiz eta hezkidetzaren guraso gehienekin kontaktatu izana. Ikerketa Gasteizko ikastetxe baten guraso talde batean oinarritu da, hortaz, emaitzak orokortzea ezinezkoa da, lagina oso txikia delako hiri-mailan. Gainera, ikerketaren parte hartzaileekin kontaktuan jartzeko oztopoak ere aurkitu izan dira, hala nola, elkartzeko eguna topatzea, lana eta seme-alabak direla eta denboraren bitartekorik ia ez zegoen, hala eta guztiz ere, ama bat izan ezik, Hezkidetzaren taldeko partaide guztiei elkarrizketa egitea lortu da. Ondorioz, nahiz eta lagina txikia izan ikerketarako hartutako eremuan ondorio sakonak ateratzeko baliagarria izan da.

Bestalde, elkarrizketen galdera guztiek emaitza kualitatiboak bilatzen zituzten, hau da, erantzun guztiak subjektiboak izan dira eta horrek pertsona desberdinen testuinguru eta bizipenengatik ateratako ondorioak aurkitzea eragin du. Emaitza kualitatiboak izateak elkarrizketatutako partaide bakoitzaren esperientzian sakontzea eta berarekiko interes handiagoa erakustea eragin du, baita elkarrizketatuak parte hartze aktiboago eta motibatuago bat izatea ere. Era honetan, emaitza errealak lortu dira, ikerketarako aberatsak izan direnak eta barruko perspektiba batetik lortu direnak, alegia. Hala eta guztiz ere, ikerketari jarraipena eman nahi izanez gero, galdera objektiboak egitea beharrezkoa izango litzateke, emaitza kuantitatiboak eta zehatzagoak lortu ahal izateko.

Modu honetan, lagina handituz eta ondorio kuantitatiboak bilatuz ikerketa beste ikastetxetara hedatu zitekeen. Honekin batera, elkarrizketetan ere moldaketak egin beharko lirateke lagina eta lortu nahi diren emaitzak kontuan hartuz. Behin hau eginda, eskola publikoen, kontzertatuen eta pribatuen arteko alderaketak egin zitezkeen, ikastetxe bakoitzaren genero perspektiba zein den ezagutzeko eta familiek hezkidetzarekiko duten interesa handia edo txikia den jakiteko.

Honetaz gain, ikerketa gehiago hedatuz, institutueta ere egin zitekeen, esparru honetan familiak gero eta gutxiago inplikatzeko baitira. Gainera institutu garaian, gazteen

adina dela eta, estereotipo eta bazterkeria gehien ematen den garaia da, eta ikasleen pentsamoldeak ikerketaren parte izatea ere interesgarria izango litzateke. Honekin batera, nagusienentzat hezkidetzarako proposamenak ere egin zitezkeen adin honetan sortzen diren ikasleen arteko desberdintasunak identifikatzeko eta horiek ahal den neurrian saihesten ikasteko, azken finean, berdintasunarekin konpromisua hartzea, etorkizunarekin konpromisua hartzea da, eta gazte horiek ere etorkizuneko gizartearen arduradunak izango dira.

Hobekuntza proposamenekin amaituz, azpimarratu beharra dago, etorkizuneko irakasle gisa, Hezkidetzari eman behar zaion garrantzia. Hezkuntza instituzioek beren barneko antolaketa eta egitura transformatu beharra daukate, ikasleen arteko berdintasuneko hezkuntza bat sustatu ahal izateko, eta, orobat, estereotipoetatik zein aurreiritzietatik at dauden identitateak eta baloreak proiektatu ahal izateko. Honekin batera, gailentasun handikoa da familiek duten eginkizuna eskolarekin batera, eskolak eta familiak esperientzia positiboak sortzen diren eta agente sozializataileek bat egiten duten lekua izan behar direlako, norabide berdinean doazenak eta ilusio zein interes berdinak konpartitzen dituztenak.

Azkenik, ikerketa honetan harturiko testuingurua kontuan hartuz, etorkizun batean, martxan jarriko den hezkidetzaren proiektuko aldaketak ikertzea interesgarria izango litzateke. Bosgarren elkarrizketan (*Ikus. 1.Eranskina: 5.Elkarrizketa, 48.or*) aipatzen den bezala, eskolari dagokionez hiru esparrutan egingo dira aldaketak: tutoretza-planetan, patioan eta materialean. Gaur egungo eskola gehienetan patioak modu berdinean daude egituraturik, hau da, futboleko zein saskibaloiko zelaiez osatuta eta gainontzeko espazioa zeregin espezifikorik ez dutenak dira. Eskolako materialari dagokionez, erreferente gehienak gizonezkoak izan ohi dira, matematiketan, musikan, kirolan eta abar. Horrexegatik beharrezkoa da ere emakume erreferenteak izatea esparru guztietan, eta tutoretza orduetara erreparatuz, askok motz geratu diren klaseak berreskuratzeko, ikasteko, etxeko lanak egiteko edo zigortzeko erabiltzen dituzte, eta ez diote bere benetako funtzioa ematen: gelako arazoak konpontzea, batik bat. Era honetan, ikerketa honekin zehatz-mehatz jarraituz gero, hurrengo urtean martxan jarriko den hezkidetzaren proiektuaren bidez landuko dena ikertuko litzateke.

9. BIBLIOGRAFIA

- Ajamil, M; Fuchs, N. eta Lucini, S. (1990). *Taller de educación no sexista*. Madril: Gazteen Gurutze Gorria
- Araya, S. (2004). Hacia una educación no sexista. *Revista Electrónica "Actualidades Investigativas en Educación"* , 1-8.
- Ballarín, P. (2006). *Guía de la buenas prácticas para favorecer la igualdad entre hombres y mujeres en educación*.
- Barba, M. (2018.eko Ekainak 9). *About Español*. Sexo, género y sexismo: <https://www.aboutespanol.com/definicion-de-sexo-genero-y-sexismo-1271572> hel
- Barquin, A. (2008). *Euskararen erabilera ez sexista*. Gasteiz: Emakunde. https://www.ehu.eus/documents/2007376/0/erabilera_ez_sexista helbidetik eskuratua
- Cabeza Leiva, A. (2010.eko Abenduak 15). *Importancia de la coeducación en los centros coeducativos*, 8, 39-42. <file:///C:/Users/ZURI.M.L/Downloads/Dialnet-ImportanciaDeLaCoeducacionEnLosCentrosEducativos-3627975.pdf> helbidetik eskuratua
- Cabrera, M.L. (2010). Caminando hacia la coeducación. *Revista Digital innovación y experiencias educativas*: https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero_35/MARIA_LUCIA_CABRERA_2.pdf helbidetik eskuratua
- Calero, M. (1999). En femenino y en masculino. *Instituto de la mujer*, 6-11. <http://www.inmujer.gob.es/areasTematicas/AreaEducacion/MaterialesDidacticos/docs/CuadernosENS/Cuaderno8.pdf> helbidetik eskuratua
- Calvo, A., Susinos, T., & García, M. (2009). *El largo camino hacia la coeducación*. Un análisis de las etapas de la educación de las mujeres a partir de tres relatos de vida escolar. *Revista de educación*, 551-553. http://www.revistaeducacion.mec.es/re354/re354_22.pdf helbidetik eskuratua
- Carretero, A. (2014). PUBLICIDAD SEXISTA Y MEDIOS DE COMUNICACIÓN. *Revista CESCO de Derecho de Consumo* , 14, 131-137. <https://revista.uclm.es/index.php/cesco/article/view/544/467> helbidetik eskuratua
- Casanova, L. (2016.eko Azaroak 25). *El diario de la educación*. La coeducación en las escuelas o cuando realmente garantizamos la prevención de las violencias de género: <https://eldiariodelaeducacion.com/blog/2016/11/25/la-coeducacion-en-las-escuelas-o-cuando-realmente-garantizamos-la-prevencion-de-las-violencias-de-genero/> helbidetik eskuratua
- Ceballos, E. (2014). Coeducación en la familia: Una cuestión pendiente para la . *Revista Electrónica Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 17, 3-4.
